

# ttüpi-ttapa

1996ko martxoak 7 • 177. zenbakia

Erreportaia

**Espainiako Parlamenturako  
hauteskundeen emaitzak**



MARTXOAK 8

**EGUN BAT EMAKUMEENTZAT**





Kafearen usain on guztia, tearen goxotasun osoa, kakaoaren loditasuna edo salda goxoaren egiazko zaporea dastatzeko... zera aurkezten dizugu:

 **JEDE-MATIC**<sup>®</sup>


Sistema erabilterraza edari beroak serbitzatzeko.

Zure lantegi edo bulegoko lanaldian atsedena hartzen duzunerako, edota zure bezeroei SEINALE polit batez hartzeko.




**JEDE GIPUZKOA**

Usandizaga, 15 - 3.A • Tfnoa: (943) 28 69 88 • 20002 DONOSTIA

 -ri buruz informazio gehiago jaso nahi nuke

Izen - Deiturak:.....  
 Lantegia:.....  
 Helbidea:.....  
 Posta Kodea:..... Telefonoa:.....  
 Herria:.....



**Polo**

**POLO diesel Berria**  
64 c.v.

...orain Sampi Aragonen

1.656.000 Ptatik. aitzin



Volkswagen

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759  
D O N E Z T E B E



## DATUAK.....

❖ Inma Zestau Leitzako Ttanttoka Emakume Taldeko partaidea da.

❖ Martxoan beteko du talde honek bere lehen urtea. Talde irekia eta zabala da: lanbide, ikasketa, ideologia eta adin guztietako emakumeak biltzen dira.

❖ Leitzako emakumeen premia eta interesen berri jakiteko inkesta egin zuten.

❖ Urte honetarako hitzaldiak, ikastaroak, mahainguruak eta bestelako aktibidadeak antolatuko dituzte.

TESTUA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIA:  
JOSEBA AZPIROZ

## Inma ZESTAU:

# «Ttanttoka Emakume Taldea oso zabala eta irekia da»

### NOIZ OSATU ZENUTEN TTANTTOKA EMAKUME TALDEA ETA ZERK BULTZATUTA?

Sorrera joan den urteko martxoaren 8ko ekitaldian izan zen, nolabait. Aitzaki horrekin Leitzako Kultur Taldeak urtero antolatu ohi zuen zerbitu, eta beti komentatu ohi zen, zein polita izanen zen urtean barrena segidaren bat ematea. Eta horrela, apart denboran gai honetaz solastu eta gure denbora libretik zerbitu dedikatze erabakia hartu genuen.

### ETA BITARTE HONETAN, ZERTAN ARITU ZARETE?

Lehenbiziko hilabeteetan elkartu egiten ginen eta etxeakoandre, langile, kanpoan ikasten zutenak eta, azken finean, nahiko talde heterogeneoa zenez, egin zitekeenaz solasten ginen. Geroago, abendu aldera edo, asoziazioa egitea pentsatu genuen, helburuak markatuz. Horrekin batera, martxan hasteko, inkesta bat prestatu genuen herriko emakumeei banatzeko motibazioak, gustoko gaiak eta nola parte har zezaketen jakiteko.

### ETA NOLAKO EMAITZAK EMAN ZITUEN?

► *«Autoestimaren gaia izan da gehien aipatu den gaia inkestetan, batez ere, joan den urtetik esperientzia txiki bat bazegoelako. Baita erlajazioa, harreman afektiboak...»*



Gauza pila bat, bai gaien inguruan eta baita lantzekomoduaz ere. Gehien identifikatu zena autoestimaren gaia izan zen, batez ere, joan den urtetik esperientzia bazegoelako. Baita erlajazioa, harreman afektiboak, heziketa berdinkidea... hoiek formakuntza edo ikas-

taroen bidez jaso nahi direnak. Bestalde, informazio bezala jasotzeko, hitzaldi edo paperekin bidez, sexualitatea, tratu txarrak, emakumea eta lana, guraso eta semealaben arteko harremanak...

### ZENBAT EMAKUMEK ERANTZUN ZUTEN INKESTA HORI?

Ba, ehun banatu baldin baziren, 53 jaso ziren. Espero baino askoz ere gehiago.

### URTE HONETARAKO PRESTATU DUZUE PROGRAMAZIORIK?

Martxorako prestatu ditugunetatik aparte, apirilean irratsaio berezi batzuk muntatzen saiatuko gara, maiztean Emakumea eta Lanari buruz mahainguru... eta horrela.

### BUKATZEKO, ZERBAIT ADIERAZI NAHI DUZU?

Bai, adierazi nahi dut Ttanttoka Taldea ez dela talde itxi bat, edozein adin, kolore eta klase sozialetako emakumeentzat irekia dagoela, eta helburuak denon artean markatzen ditugula.




# ESPAINIAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK






**Martxoaren 3an burutu dira Espainiako Senatu eta Kongresurako hauteskundeak. 1993an egin zirenekin konparatuz, estatu mailako alderdien indartzea nabari da, izan ere, sekulan lortutako emaitzik onenak eskuratu dituzte (botuen %55a), alderdi abertzaleen kaltetan (%45a).**

## ESKUALDE MAILAN ALDERDIEN EMAITZAK

(96-III-3KO HAUTESKUNDE OROKORRAK)




## ALDERDI BAKOITZAREN EBOLUZIOA AZKEN URTEOTAN



## CONVERGENCIA DEMOCRATICA



## IU




**Baztanaldean** UPN-PP da alderdi nagusia inolako ezbarrik gabe, botuen %38a eskuratuz. Bigarren indarra EA bada ere, PSOEek baino 17 botu gehiago ditu bakarrik. Hiru alderdiok goiti egin dute aitzineko hauteskunde orokorrekin konparatuz. HB eta PNVk, berriz, behiti egin dute. Bertze eskualdeekin konparatuz, abertzaleek indar guttitan duten eskualdea da, botu guzien %34a.

**Bortzirietako** nagusigoa HBren esku dago, UPN-PPri 31 botu eskaxeko abantaila atereaz. PSOE da hirugarren indarra ia mila boturekin. Halere, herriz herri aldatzen da alderdi nagusiaren izena: Arantzan HB, Beran eta Igantzin PSOE, Etxalarren UPN-PP eta Lesakan PNV. Orokorrean, alderdi estatalistek goiti egin dute, PSOEek gehien bat, eta abertzaleek beheranzko joera tiki bat dute. Hautesle goa erdi eta erdi banatzen da estatalista eta abertzaleen artean. **Leitzaldean** HBren nagusitasuna mantentzen da eta herri guzietan talde indartsuena da, nahiz eta botuak galdu dituen. Bigarren alderdia den EAren botuak bikoiztu ditu. UPN-PP hirugarren lekura jeitsi da. Indar abertzaleek, botu guzien %62a bildu dute.

**Malerrekan** EAK lehen postua mantentzen du UPN-PPk baino 34 botu gehiagorekin. Hirugarren indarra PSOE da. Alderdi abertzaleek botu guzien %46a eskuratu dute eta estatalistek %54ra aialagatu dira.



# MARTXOAREN 3KO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK HERRIZ HERRI



**Zentsoa**  
21.925  
**Partehartzea**  
%70

◆ **Lehen aldiz, alderdi abertzaleek gehiengoa galdu dute eskualde mailan**

◆ **Leitzaldean HBk eta Baxtanaldean UPN-PPk, bigarren indarraren betuak bikoiztu dituzte**

◆ **IV eta P50Ek azken hamar urteetako emaitzik onenak lortu dituzte. EA eta HBk, ordea, txarrenak.**

◆ **UPN-PPk ez ditu 93ko emaitzak hebetu**

	Zentsoa		CONVERGENCIA CDN		EA		HB		PNV		PSOE		UPN		IU	
	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996
ARANO	151	80	-	11	10	11	37	38	10	7	3	1	18	12	1	0
ARANTZA	619	444	-	19	71	47	134	126	108	79	53	89	73	64	4	9
ARESO	249	164	-	41	21	16	63	57	0	0	21	9	57	38	0	2
BAZTAN	6554	4600	-	212	889	914	640	533	108	76	841	870	1692	1738	101	163
BEINTZA-LAB.	259	168	-	12	21	11	16	9	4	8	45	35	81	86	3	5
BERA	2805	1985	-	105	269	269	393	393	95	96	416	473	402	443	70	153
BERTIZARANA	518	376	-	25	95	90	47	41	12	8	85	75	98	92	10	23
DONAMARIA	312	224	-	25	46	41	48	32	10	7	48	36	45	64	5	16
DONEZTEBE	980	761	-	30	183	187	76	72	17	35	134	161	200	208	35	46
ELGORRIAGA	163	121	-	14	22	29	34	29	12	3	20	19	18	18	0	3
ERATSUN	-	-	-	-	33	-	23	-	9	-	3	-	32	-	2	-
ETXALAR	682	431	-	18	62	36	132	125	10	17	48	76	147	140	9	7
EZKURRA	220	108	-	15	24	16	24	14	2	0	28	21	48	34	0	4
GOIZUETA	849	535	-	56	98	83	376	292	4	22	25	25	30	15	1	8
IGANTZI	500	378	-	13	44	54	80	66	36	35	79	95	111	92	7	14
ITUREN	386	294	-	4	107	111	105	99	2	0	26	42	33	29	1	3
LEITZA	2509	1729	-	95	358	363	616	555	37	35	180	218	391	359	33	74
LESAKA	2343	1691	-	34	219	205	366	351	475	430	213	262	237	291	37	80
OITZ	136	91	-	9	33	32	35	24	2	0	3	7	9	8	0	3
SALDIAS	127	95	-	9	31	32	20	18	12	3	7	9	13	18	2	3
SUNBILLA	555	390	-	18	137	150	77	50	7	4	62	72	78	83	2	6
URDAZUBI	329	242	-	25	25	40	21	18	5	7	41	42	115	99	2	3
URROTZ	169	109	-	11	21	16	19	12	10	4	8	15	48	46	1	2
ZUBIETA	296	167	-	5	31	26	62	62	6	9	32	32	22	21	4	1
ZUGARRAMURDI	214	143	-	9	3	10	26	27	9	11	27	35	55	37	11	5

• 93 Espainiako Parlamenturako hauteskundeak (93-VI-6)

• 96 Espainiako Parlamenturako hauteskundeak (96-III-3)



EGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.200 ALE

GITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
zena, Joxemanuel Irigoien.  
**ministrazioa:** Amaia Goia.  
**redakzio taldea:** Pello Ape-  
xea, Juainas Paul, Kristina  
an, Bittori Telletxea.  
**riemaileak:** Joseba Azpiroz,  
eban Arozena, Juana Mari  
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
si, Txema Aldabe, Pello Etxe-  
Txema Urroz, Patxi Otxan-  
ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
te, Pablo Mendiburu, Joseba  
abide, Alizia Olaizola, Margari  
enike, Koro Irazoki, Mixel  
endiain, Jacqueline, Elixabet  
ria, Garbiñe Maiz, Oskar  
perena, Alberto Sansiñena,  
o Apezetxea, Aitor Arozena,  
tina Boan.

**laboratzaileak:** EHNE Nafa-  
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-  
a, Joxe Javier Etxeberria,  
ntxa Zabala...

**rimategia:** Graficas Ona.  
**i-ttapa** ez du bere gain har-  
derrigorrez, aldizkarian adie-  
tako erranen eta eritzien eran-  
izunik.

**kunde Laguntzaileak:** Bera,  
za, Goizueta, Areso, Baztan,  
azubi, Zugarramurdi eta  
ako udalak, Bortzirietako  
skara Mankomunitatea,  
errekako Zerbitzu Mankomu-  
tea, Zugarramurdiko Akelarre  
arte...



aldizkari honek Nafarroako  
bernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Martxoaren 8a: Emakumearen Eguna

#### Aurrera emakumeak! Lan ederra eta polita daukagu egiteko!



M<sup>o</sup> Carmen Lanz  
Berako Uxua Emak.T.

Emakumearen Egunak, zera adierazten dit: Emakumeok pertsonari dagokion duintasuna eta zoriontasuna lortzen saiatu behar dugula urteko egun guztien zehar. Honetarako gure ahalmenak landu eta garatu behar genituzke, kiroletan, lanean, politikan, arte eta kultura munduan..., inolako kanpoko mugarik gabe.

Helburu eder hau lortzeko bidean egon arren, oraindik gure gizartehonetan aunitz falta zaigula iduritzen zait. Lehenbiziko pausua emakumea bera, bere egoera pertsonalaz jabetzea izanzen litzateke eta ondotik, beste emakumeen laguntzarekin (zaila da gizon baten hau ulertu eta onartzea) lehen aipatutako duintasun eta zoriontasun bideak jorratzea. Ama garenok zeregin haundia dugu alor honetan: neska eta mutilei ttikitatik pertsona bezala jokatzeko erakutsi behar diegu, sexu diskriminaziorik egin eta onartu gabe eta argi utziz pertsona bakoitza, mutila nahiz neska izan, bere ahalmenei egokitutako edozertara iritsi daitekeela.

#### Ez diot sentidu haundirik ikusten egun horrerri



Kontxi EZEIZA  
Etxekoandrea. Areso

Emakumearen Egunari ez diot sentidu haundirik ikusten. Egun horretan emakume guztiak jai izanzen bagenu, orduan bai, bainan lana egin ondoren afari edo bazkari batekin ospatzeari ez diotsentidu haundirik ikusten. Hori bai, afarian oso gustora pasatzen dugu, eta hitzegin ere, hitzeginen dugu, bainan beste egun batean eginen genuen bezalaxe.

Emakumeen artean, nik bederen, bi maila ikusten ditut: etxean lan egiten dutenak eta etxetik kanpo ari direnak. Lehenengozat gauzak ez dira gehiegi aldatu. Egia da lehenengo emakumeekin konparatuz, oraingoak libertate gehiago dugula gure eguneroko bizimoduan, bainan bestela, beti bezalatsu ikusten dut emakumeen egoera. Kanpoan lan egiten duten emakumeentzat al daketa nabarmenagoa da. Gizonak bezala emakumeak ere kanpoan lan eginez gero, etxebarneko harremanak aldatuko ditu. Eta gauzak horrela, Emakume Talde bat sortzeak ez dakit gauza haundirik molatuko duen bere egoera.

#### Istoria ttiki bat



Isabel ELIZALDE  
Garapen Agentea. Zub.

Behin batean duela 20-30 urte bazen neskatar bat Baztan Bidasoan bere bi anaiekin familia normal batean bizi zena. Eskolara joan aitzin bakoitzak bere ohea egiten zuen. Larunbatetan, ordea, etxea garbitzen lagundu behar izaten zuen. Eta nire anaiek, zergatik ez? Mutilak direlako erantzuten zioten. Ez zuen ulertzen... Eta? Ez zuen uste orduan, gero ere, galdera berbera gehiagotan eginen zuela.

Orduan mutilak eskola batera eta neskak bestera joaten ziren. Bainan, Konzentrazioarekin, denak batera. A zer lorpena. Institutuan berdin. Hori bai, lagunekin ateratzerakoan mila kontseilu eta... Bordatxo 50 Pta. merkeago neska zelako. Ikasketak bukatu ondotik, lanean hasi zen, ostalaritzan, neska gehienak bezala, eta halako batean, bere formakuntzarekin zerikusia zuen lana lortu arte. Halere, gaur egun ere desberdintasun ugari ikusten ditut nonahi, bainan argi ikusten du gero eta arrazoi guttiago daudela horretarako.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

#### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

#### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## BOTA BERTSOA



**Emakumearen  
Eguna:  
Berdintasunerantz  
goaz?**

**Saioa MITXELENA**  
Neurria: Zortziko handia

*Martxoak Zortzi omen daukagu  
Emakumeen Eguna  
neskatxa askok erakusten du  
harro bere nortasuna  
baina borrokan urte osoan  
egin behar da jarduna  
horrela ziur lortuko dugu  
denontzat berdintasuna.*

*Egun honetan morez jantzita  
egonen da hainbat neska  
ta elkarrekin eginen dute  
afaria eta besta  
bertze batzuek nahiago dute  
kalean egin protesta  
baina egun hau egutegiko  
bertze bat bertzerik ez da.*

## IRAKURLEAK MINTZO

**121 A eta B  
errepideei buruz**

Egun hauetan *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco* egunkarietan zenbait eskutiz agertu dira 121-A eta 121-B izeneko errepide nazionalen gainean alde batetik, eta Doneztebe-Bortzirietako EAk gai honi buruz agertu omen duen jarreraren gainean, bertetik.

EAK, hau dela eta, honako hau adierazi nahi du:

1.- PSOE, CDN eta EAK osatzen duten Nafarroako gobernu-programan, bere 11. orrialdean, aipatzen dira 1995-1999 legealdian eginen diren obrak.

Eusko Alkartasunaren ekimenez, hain zuzen ere, Iruñea-Behobia eta Iruñea-Mugairi-Dantxarinea ardatzeko obrak espreski aipatuak dira. Hitzez hitz aldatuko dugu han errandakoa: "Iruñea-Behobia", Belateko obra guziak bukatzea eta hastea bai Zozaiia-Legasako bideztaia bai Larrakaizko tunelak eta baita Enderlatsa-Behobiako bideztaia ere.

"Iruñea-Dantxarinea. Arraioz eta Oronoz-Mugairiko ingurabideak bukatzea, Otsondogaineko errepidea zabaltzea eta Elizondoko ingurabidea hastea".

2.-Goitixeago errandakoa leitutakoan, edozeinendako argi dago Behobiarekiko

loturak lehentasuna duela. Baina ez da ahantzi behar obra haundiak ezin direla bapatean burutu, puskaka egin behar dira. Gainera, orai berean, berebiziko inportantzia duen bide batean lanean ari dira, Belatekoan hain zuzen ere.

3.- Eusko Alkartasunaren ustez azpiegiturak funtsezkoak dira erabiltzaileok eskatzen dugun industri eta zerbitzu-sarea gurean finka daitezen. Eta ez gara ari soil-soilik errepideez baizik eta baita enplegu eta zerbitzuez ere, eskualde honetako garapen ekonomiko eta sozialaren oinarri bilakatu behar direnak.

4.- Baztan, Malerreka eta Bidasoa eskualdeko alkate-batzarre ugarietan, beti eta ahobatez, aprobataua izan da 121 A eta B izeneko errepideak egiteak duen lehentasuna. Erran gabe doa eskualdeko batzarre hauetan alkate gehienak EAKoak direla.

5.- Ohar hau esames eta hirtarrak nahastu nahi dituzten mezu ozpinduak ebiltzeko baliagarria izan da dila nahi dugu. Azken finean aipatu mezu maltzur horiek ez baitute deus positiborik ekartzen gure herriarentzat, ezta bere garapenerako ere.

BAZTAN, MALERREKA  
ETA BORTZIRIETAKO EA



**Euskal Herriratzeko  
altxarfuak**

Espainiar Gobernuak eta PSOE eta PP alderdiek, legeak diotenari kontra eginenez, presoan oinarritzko eskubideetako bati ekin zioten agintera iritsi zirenean: preso politikoak euren sorreratik urrutzea.

Senitarteoek egin behar izaten dituzten kilometro kopurua izugarria da hogei minutuko bisita bakar baterako—eta hori, lortzen dutenean—. Mugagabeak dira aurkitzen dituzten arazoak eta trabak. Gehienez, 1.000 kilometro edo 2.000 egin behar izaten dituzte egun berean.

Dispertsioari aurre egiteko, euskal presoak gose greban sartu ziren astebeteko txandatan.

PSOE eta PPk, Europar Batasunaren erabakiarri muzin egiten dioten bitartean, euskal gizartearen deia darrabazaltzeko, bertze ekin-tzen artean, egunero egunero, arratseko 10etan altxafero bat botatzen da Beran.

Aitzinera begira ere, Beran nahiz Euskal Herri osoan mobilizatzen jarraituko dugu presoak Euskal Herrira ekarri arte. Beharra eta eskubidea delako.

BERAKO HERRI BATASUNA



LESKA

**SEAT Audi VW**

**GELTOKIAK, S.L.**

**100 ibilgailu**

**baino gehiago**

**Aukerako  
ibilgailuak**

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • ☎ 908.779356

**ETXANDI  
TXOKO  
erretegia**

**Bazkari, afari eta  
gosariak**

**ITUREN**

**Tfnoa: 45 04 91**



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario Noticias 96-II-29

«Ezin dut Eskuz Banakako Txapelketa jokatu. Eskuineko ipur mazelan aspaldixkotik dudana tendiniatigatik idea hori burutik kendu behar izan dut.

Zer nahiago nuke jokatu baino?»

Julian RETEGI

Eratsungo pilotaria  
Diario Noticias 96-II-29

«EAEko Unibertsitatea 'askoz izen zehatzagoa litzateke. Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen zaio baina egia

da Euskal Herria erkidego hau baino haundiagoa dela».

Pello SALABURU

EHUko errektorea  
Argia 96-II-25

«Irratia eta irakaskuntzaren artean aukeratzea zaila izanen litzateke. Biak politikak dira. Irratiko lana gogorra da baina oso gogoko dut»

Goizalde

URDANPILLETA

Xorroxin Irratiko lankidea  
Argia 96-II-25

## 11 GALDERA LABUR

◆ **Esaldi bat jendeari errateko?**

◆ Gaur kontent nago.

◆ **Barkazioak pasatzeko leku erakargarri bat?**

◆ Hoberena, Zubietako lasaitasuna.

◆ **Bizitzak erakusten duen psikologia edo liburuetakoa?**

◆ Momentukoa, liburuetakoa pasatua zegok.

◆ **Zer eskatzen diok bizitzari?**

◆ Lasaitasuna eta alaitasuna.

◆ **Telefonoz edo kartaz?**

◆ Solas zuzena.

◆ **Eguna edo gava?**

◆ Gustora nagoen momentua.

◆ **Solaskidetako, neska edo mutila?**

◆ Pertsona, horrek erran nahi duen guziarekin.

◆ **Zeri diok beldur?**

◆ Neska politei.

◆ **Prolema psikologikoak edo fisikoak, zein ttuk zailenak?**

◆ Mugatzen gaituztenak.

◆ **Maitasunaldiak, nolakoak?**

◆ Laguntasunean oinarrituak.

◆ **Zertan birgorpuztuko hintzateke?**

◆ Pantera beltz batean.

◆ **Hire buruaz guttien gustatzen zaikena?**

◆ Inkonformismoa.

◆ **Oraindik bete ez duken nahi bat?**

◆ Bizia konprenditzea.

◆ **Lemaren bat?**

◆ Beldurra ematen digun zerbait ezagutzen saiatzea.

◆ **Hire buruari galdera bat?**

◆ Oraindik asko erantzuteko zeuzkiat.



**Jon Mikel ARAGON**  
32 urteko Zubietarra



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40  
**BERA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

**AHORRO-BERRI**

janaridenda

Legia 4 • BERA

**Ireki berria**



Bera

## Nafarroako Bertsolari txapelketako finalerdia martxoaren 17an

Berako polikiroldegian, arratsaldeko 4,30etan, erabakiko da Goizuetako finalean egonen diren bertsolariak

KRISTINA BOAN

Nafarroako Bertsolari txapelketako finalerdiko saioa Berako polikiroldegian burutuko da martxoaren 17an, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera.

Hiru lehendabiziko saioetan bigarren postua eskuratu duten bertsolariekin batera, puntuazio altuena lortu duten borts lagunak arituko dira kantari, Goizuetako finalerako borts txartelen bila.

Hau idazterakoan, Estitxu Arozena da Berako saiorako sailkatutako bertsolari bakarra. Kexus Arzallusek, berriz, martxoaren 24ko finalerako txartela segurtatua du.

### BORTZIRIETAKO ORDEZKARITZA

Gaur egungo txapelkunarekin batera, Bortzirietako bertze lau bertsolari ari dira aurtengo txapelketan: Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Xabier Silveira eta Manolo Arozena lesakarrak.



Jesusen Bihotza eta Hendaiaiko haurrak entsaioa baino lehen Arg.: Aitor

### Jesusen Bihotza ikastetxea eta Hendaiaiko Antzerkilariak elkarrekin "Izarren bidetikan"

"Bederatzi eta hamar urte arteko haurrek antzerki obra bat euskaraz idaztea eta burutzea" helburuarekin elkartu dira berako Jesusen Bihotza ikastetxea eta Hendaiaiko 'Antzerkilariak' taldea. Hau dela eta, joan den urteko urritik martxora hama-

bortzero Beran eskola orduetan idazmena lantzeko tailerrak izaten ari dira. Hendaian berriz, Antoine D'Abadien ondarea aztertzen dute. Bukatzeko, maiatzean, 'Antzerkilariak' antzerki taldeak, obra bukatua antzetzeko du bai Beran baita Hendaian ere.

Proiektuaren aurrekontu osoa 134.340 liberakoa da (3.350.000 pezeta inguru) eta Hendaia eta Berako Herriko Etxeen dirulaguntza jaso du. Erabelean, Akitania-Euskadi-Nafarroa protokoloan ezarritako lankidetzaren fondotik 53.244 libera jaso ditu.

ttipi-flash

### Akta euskaraz eta erdaraz

Otsailaren 9ko udalbatzarrean talde guzietan ahobatez hori onartu ondoren, udalbatzarretako aktak euskaraz eta erdaraz eginak agertzen hasi dira.

### Protesta Gobernuari

Arazketa Plana egiteko (ur zikinaren depuradora) eskaria egin zion udalak Nafarroako Gobernuari. Han, ordea, aurtengo obren Planean sartu gabe utzi dute obra hau, eta horregatik, Herriko Etxetik protesta bidaliko zaio.

### Emakumearen Eguna

Ekitaldiak antolatu ditu martxoaren 7tik 10era Uxua Emakume taldeak. Xehetasun gehiago agendan, 28. orrialdean.

**BOAN**  
TAILERRA  
CITROEN Banatzailea  
AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 63 06 23 • BERA

*Errekalde ostatua*  
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak  
Tfnoa: 630259 - BERA

**LABEZAR**  
© 631076 • BERA

**ZALAIN**  
J A T E T X E A  
FUGIFKO MENUIA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
BERA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**Lesaka**

# Alkaiagako industrialdean zenbait lan egiteko baimena eman da

Ur-hodiak trenbide zaharraren bidea probetxatuko du eta poligonoaren aintzinaldean dagoen zubia botako da

**AITOR AROZENA**

Nafarroako Gobernuak Alkaiagako industrialdera ur-hornidurarako tuberiaren bidea aldatzeko obra-baimena eta industrigunea eta trenbide zaharraren bidearen artean lur-exkabazioa egiteko baimena eskatu zituen. Bertzalde, auzoko bizilagun batzuek poligonoaren aintzinaldean dagoen trenbideko zubia botatzea eskatu zuten.

Udalak, ahobatez onartu zuen lan hauek egiteko obra-baimena ematea. Honela, tuberiak trenbide zaharraren bidea probetxatuko du eta trenbidearen eta industrialdearen artean dagoen mendixka kenduko da. Hemen sortuko den zelaian, belarra erein eta zuhaitzak landatu beharko dituzte, berdegune bezala erabili ahal izateko moduan.

Alkaiagako bizilagunen eskaria ere kontuan hartu zen.



Alkaiagako industrialdearen aitzinean dagoen trenbide zaharreko zubia botatzea eskatu dute bizilagunek  
Argazkia: Karmele

## Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe herriko presoak epaitu dituzte

Bi urte eta lau hilabete luzez prebentibo edo behin behineko preso gisara estatuko kartzel ezberdinetan egon ondotik, otsailaren 26, 27 eta martxoaren 1ean epaitu dituzte Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe. Oraindik ez da jakiterik zenbateko zigorra

ezarriko dieten, auzia epaiaren zain gelditu baita.

Herriko bi semeei elkartasuna adierazteko eta animoak emateko asmoz, astelehenean kotxez eta ortzitan autobusez hainbat herritar hurbildu ziren Madrilgo Auzitegi Nazionalera.

## San Fermin elkartearen bidaia Xabierren martxoaren 8an

Ortziral honetan, martxoak 8, Xabierren bidaia egingen dute San Fermin jubilatuko eta pentsionisten elkarte-kideek.

Goizeko 11etan meza aditu ondok gaztelura bisita egingen dute. 1,30etan bazkari goxo izanen dute Xabier hotelean. Arratsaldeko

*ttipi-flash*

- ◆ **Adineko** pertsonentzako Etxebizitza Zainduak Etxe Komunitario bihurtuko dira. Aurrekontua 3.605.700 pezetakoa da eta lanak 'Etxarte y Cia' keginen ditu.
- ◆ **Emakumeen Eguneko** afaria izanen da Kattun, 9,30etan. Izena okindegian eman behar da.

**ARRANO**

**OSTATUA**

© 627597 • LESAKA

koxkonta

**Sagardotegia zabalik**

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA



## Īnauteri zuriak izan dira aurtengoak

Baserriz baserriko ibilaldia gogorragoa izan zen



PELLO ETA ALBERTO

Gauza berezirik aipatzen hasi eta, eguraldiarena izan da nabarmena, negu guzian egin ez duena Inauteri egunetan ikusi baitugu. Negu guzian egin ez duena erran dut? Azken urteetako negetan ez bezalako elurtea etorri zaigu egun horietan. Egia erran, jendearen pozgarri, hala sumatzen zen behinpehin jendearen solasetan. Dena den, ez pentsa euriak eta elurrak jendea beldurtu zuenik, zeren eta astelehenean baserri auzoetan, eta asteartean karrikan, jende ugari ibili baitzen karrozen inguruan. Ortze-gun Gizena hotza bai, baina idorra egin zi-



gun, haurren antzerkiak horrela auzoz-auzo ikusi ahal izan ziren.

### Ebasketa herriko berri izan da

Ez da gauza berria, eta aipagaitarako hartzea ere ez du merezi, behar bada. Baina aipagarria izaten ahal da zeinen lasai eta erraz ibiltzen diren lapurrak, oraingo honetan bezala. Jendeak sumatzeko moduko zarata sortu, ebatsitakoa eramateko autoak ere hartu...

Hala ere, nonbait hori, autoak jabeari itzultzeko aukera ematen dutenean, oraingoan bezala.

### Etxez-etxeko Gizarte Zerbitzua...

orain arte ez da ordaindu. Gobernuak eta Udalen kontura izan da dena, baina lana ugaritzen ari denez eta sos beharra haunditzen, zerbitzua egiten duten etxe bakoitzari honenbertzeko bat ordainaraziko ote duten pentsatzen ari dira.



Īnauterietako mozorroen irudiak Argazkia: PELLO

### Larraburuaren junta berri da

Larraburu elkar-  
tearen Junta berri  
dute, urteko Batzar

Nagusian. Gaston  
Lestuzzi da juntakide  
berria.

## ORBELA

gimnasioa

Squash • muskulazioa • sauna

© 637950 • LESAKA

## SAROBĒ

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BĒRA

## « USA »

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

## EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena

Frexkuena  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264



## HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

SAGARDOTEGI MENUA

*Trorizoa sagardoan egina  
Bakailu Tortilla  
Idi Truleta  
Gasna, membrilloa eta intraurrak  
Nahi den sagardo guztia  
4.000 pezeta bikotea*

© 635290  
ETXALAR



Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

## XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA





# Rafa Retegi izanen da Biltokiko lehendakaria

Batzarra egiteko lehengo arazo berak izan ziren, jende nahiko ez izateagatik



Rafa Retegik beteko ditu hurrengo bi urteetan Biltokiko lehendakari lanak

**OSKAR TXOPERENA**

Nahiko gaizki ibili ziren Biltoki elkarte-ko batzarra egiteko, beharrezko zen kopurura ailegatzeko ordu erdi bat pasatu behar baitzuten esperoan. Punturik garrantzitsuena Biltoki Titikoa zen. Ezin izan zen, halere, deus haundirik argitu, gazteek zer nahi duten ez baitzen argi ikusten. Momentuz, euren eritziaren zain gelditzea erabaki zen, ondotik behar diren neurriak hartzeko. Juntaren zati haundi bat ere berritu zen. Ondoko hauek dira sartu berriak: *Lehendakaria*: Rafa Retegi eta *bokalak*: Pedro Tapia, M<sup>o</sup> Jose Arburua, Javier Taberna, Agustin Sainz, Blanki Hita eta



Otsaila etorri arte egin duen negua ikusita, inor guttik pentsatuko zuen hain hilabete txarra egiten ahal zuela. Denetik erakutsi digu joan den otsailak: haize bolada izugarriak, kazkabarra, hotza eta azken aldera, elurte ederra ere. Hamar urte baziren, guttienez, ez zuela hainbertzeko elur erauntsirik egin

Arg.: Oskar TXOPERENA

Juanmi Etxeberria.

**Arkupeko besta**

Otsailaren 27an ospatu zuten Arkupeko Igantziko bazkideek

beren urteko besta. Ohiko ekitaldiak izan zituzten, hau da, meza, urte guziko ekitaldiei erreposoa eta bazkaria bertsolari eta mu-

sikarekin. 70 laguntik goiti bildu omen zen azkenean.

**Mendi plantazioak**

Aurtengo neguan

3.000 zuhaitzetik goiti plantatu ditu udalak mendi komunaletan, Abelu eta Erroitzkerrekan eta Abelun, bertzeak bertze. Gaztairondo batzuk kenduta, bertze guziak haritz amerikanoak dira.

**Hiru etxe...**

moldatau eta txukundu ditu udalak INEMen laguntzarekin kontratatutako bi langileekin: Herriko Etxea bera, Eskol-zahar eta abere hiltegi zaharra. Boni Zelaieta eta Joxean Hita Fraingo errepidearen bazterrek garbitzen ari dira orain.

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



63 01 55  
BERA



**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
LESAKA



# ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurriak eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA



# Eskolako haurrak klaserik gabe gelditu ziren elurraren ondorioz

Bertzalde, guardia zibila HBren bideoa bilaka aritu zen Ekaitza elkartearen erregistratuz eta herritarrak katxeatuz



GARBIÑE ETA ELIXABET

Otsailaren 19ko gauean elurra hasi zuen, dena xuri-xuri jarritz momentu batean. Txuritasun horrek ortzegunera arte iraun zuen. Herriko karriketan 30 bat zentimetro-tako elurra pilatu zen. Haurrek ez zuten izan eskolarik, karreteran autorik ezin baitzen ibili eta kanpoan bizi diren irakasleak eta baserrietako haurrak ezin ziren etorri. Ederki pasatu zuten haurrak eta hain haurrak ez direnak. Jendeak, behar bada, janaririk gabe gelditzeko beldurrez zegoen, ogia bakarrik iristen baitzen herrira. Dendak ia hutsak gelditzen ari ziren.



Elurrarekin ederki pasatu zuten herriko jendeak

## Guardiazibila HBren bideoaren bila Ekaitza elkartearen

Otsailaren 23an Herri Batasunak hitzaldia eman zuen Ekaitza elkartearen. Hitzaldiarekin batera afaria zegoen. Afaria hasi baino lehen guardia zibilak azaldu zi-

ren, Garzonen agindurekin, bideo famatuaren bila. Soziedadea erregistratu zuten bitartean bertze batzuk Bide-berriko bidegurutzean kontrola ezarri zuten. Herrian ber-

tan jendea katxeatze-  
ra ere aritu ziren. Bukaeran, bideorik aurkitu ez zuten, alde egin zuten. Afaria eta solasaldia normaltasun osoz egin ahal izan ziren.

## Sagardotegia

Martxoaren 8an Astigarrako sagardotegi batera bidaiari antolatatu du Ekaitza elkarteak. Nahi duenak apunta daitezke. Bazkideek 3.200 pezeta ordaindu beharko dute eta sozio ez direnak 3.800. Afaria eta autobusa prezioan sartuak dira.

## Monagilloak

Monagillo berriak izanen ditugu martxoaren 3tik aitzinera. Dirudienek, Eduardo, Josu eta Maria asperitu dira. Jon, Joseba, Julio eta Danielek hartuko diete txanda.

## Paperontziak

Herrian barna paperontzi berriak jartzen ari dira Iruñeko Aurrezki Kutxak laguntzarekin.



## EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13  
948 - 62 75 47

LESAKA

Lagunekin  
elkartzeko  
toki egokia

## SASOI Eskabazioak E.M.S.

☎ 450165 • 908.779366 (Patxi)

☎ 450286 • 908.165399 (Pello)



## DONEZTEBE AKADEMIA

Klaseak ematen dira

- OHO, FP, BUP, REM
- Matematika, fisika, frantsesa...
- Mekanografia

Badakizu honen beharra duzula

Parrokia 10, 3. • 450326  
DONEZTEBE

## LEGARRA

Legarrea, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

## ESKANTZAK

Martxoaren 31 bitarte baliagarriak dira

• 'Instant' pegamento barra	200 Pta.	135 Pta.
• 'Fastener' dossierra	90 Pta.	60 Pta.
• 'Petrus' grapak (1.000)	75 Pta.	56 Pta.
• Diskete kaja (10)	1.915 Pta.	1.530 Pta.
• Boligrafo zuzentzailea	365 Pta.	313 Pta.
• Idazmakinarako zinta	722 Pta.	578 Pta.
• 'Bic Cristal' boligrafoa	45 Pta.	31 Pta.
• Faktura Talonarioa	340 Pta.	252 Pta.
• 'Uniball' errotiladorea	280 Pta.	252 Pta.
• 'Imedio' pegamento tubo	135 Pta.	122 Pta.
• Akordeoi karpeta alfab.	1.549 Pta.	1.131 Pta.
• 'Carioca Joy' errotiladoreak	202 Pta.	169 Pta.

## Andregaiak eta amautxiak

Jantziak neurrira eginak

M<sup>a</sup> Nieves • 943-627977 • IRUN

Euskaraz badakigu



## KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98

BERA



**Sunbilla**

# Antzakaitz eta Ulibeltzak elkartea elkarrekin lan egiteko prest

Antzakaitz Kultur taldearen hurrengo asmoa, Kultur Astebukaera bat antolatzea da

IXABEL ETA JOSUNE

Otsailaren 25ean burututako bilera batean Antzakaitz kultur taldeak Ulibeltzak elkarteak proposatutako eskeintza onartu zuen. Eskeintza honen arabera, Ulibeltzak elkarteak Antzakaitz taldekoei beraiekin batera lan egitea eskatzen zien, elkarte horren adar edo sail bat balira bezala.

Honek zera erran nahi du, Antzakaitz kultur taldeak ekitaldiak antolatzen dituztenean Ulibeltzak elkartearen laguntza izanzen duela. Eraberean, Antzakaitz taldeak bilera eta bertzelako ekintzak (otorduak edo solasaldiak, errate ba-



Ulibeltzka elkartea behar duenean bere lokala Antzakaitz taldeari uzteko prest agertu da

Artxiboa

terako) egiteko egoitza edo lokala behar duenean Ulibeltzak elkarteak berea utziko dio.

Etorkizunerako ekitaldiei begiratuz,

Antzakaitz kultur taldearen asmoa Kultur Astebukaera bat egitea da. Oraindik egitaraua guztiz zehaztua ez badago ere, horren berri TTIPI-TTAPAREN

hurrengo aleetan ematen dugu.

## Musika kontzertuak Fondan

Martxoaren 16an, gaueko 11etatik aitzina

nera Txakun taldea izanena da Fonda ostatuan. Martxoaren 24ean, toki eta leku berean, King Mafrundi reggae taldea arituko da.

## Udal artxiboa txukuntzea ezinezkoa

Herriko Etxeko artxiboa txukuntzeko aurkeztutako aurrekontua ikusirik, gastu horietan sartzea ezinezkoa dela erabaki zuen udalbatzak azken batzarrean. Idazkariak, artxiboan gero eta leku guttiago dagoela erran zuen. Artxibategiaren erdian bertze apaladi bat paratzen ahal dela erantzun zion Pako Petrirena zinegotziak, gainerako zinegotzien adostasunarekin.

**MariCruz**  
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

## SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS



## TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



**Doneztebe**

# Haur Kantari txapelketaren saioa martxoaren 16an Bordatxon

Krispolenea nekazal turismorako etxearen zati bat erre da tximenitik su hartu ondotik

**TXEMA ALDABE**

Berriz ere aukera ederra izanen dugu haurrak kantari entzuteko. Nafarroako txapelketa honek hiru kanporaketa izanen ditu, lehenbizikoa Barañainen izanen da, martxoaren 9an; bigarrena Donezteben martxoaren 16an, larunbatean, arratsaldeko 4,30etan Bordatxo dantzalekuan eta hirugarrena, berriz, martxoaren 23an Burlatan. Finala Iruñeko Gaiarre antzokian ospatuko da martxoaren 31n goizeko 11etan.

Donezteben kantari arituko direnak ingurukoak izanen dira, gehien bat Goizueta, Leitza, Bortzirriak, Baztan eta Malerrekoak. Doneztebeko eskolako talde batek, Sorgiñak izenekoak, ziurtatua du bere partehartzea.

**Aldaiaren bila**

Otsailaren 16an, ortziral gaueko edo goizaldeko bi orduetan on-



Gaur egun berrogeitabortz gazte inguru ibilki dira judoan entrenatzen Oskar Mindegia irakaslearekin

gi prestatutako polizi sail bat Mugitz base-rian sartu zen. Garzon epailearen papera zekartzaten, etxearen miaketa eta Daniel Belarraren atxiloketa aginduz. Bi orduz dena ongi begiratu eta bazter guziak nahasi ondotik alde egin zuten. Modu horretan etxean sartzeak bertan bizi diren lau lagunei, bat 14 urtekoa eta ber-

tzea 4koa, sortutako ikaria eta ezintasuna nabariak dira.

**Nafarroako judo txapelketa**

Martxoaren 2an Doneztebeko judo taldeak eta Nafarroako Federazioak antolatutako 150 judoka aritu ziren Donezteben, hiru mailatan banatuak: 21 urtetik behitikoak, 13

urtetik behitikoak eta 11 urtetik behitikoak.

Txapelketa honetan, 21 urtez behitiko mailan Juan Ugalde eta Mikel Bertiz aritu ziren. 11 urtetik behitikoan, berriz, Malerreko hamar haur aritu ziren. Gaur egun, Donezteben 45en bat gazte ibilki dira kirol honetan entrenatzen, Oskar Mindegia-ren es- kutik.

**Krispoleneak tximenitik su hartu zuen**

Tximenitik su hartu zuen Krispolenea nekazal turismorako etxeak otsailaren 24an. Baztan zubi ondoan dagoen etxe polit hau azkeneko bi urtetan horretan ari zen, hau da, turisten erabilerarako nekazal etxe gisa. Erre zen momentuan lau gazte zeuden bertan, asteburua pasatzeko asmoz. Bezperan lurreko sua piztu zuten eta larunbatean sabai partetik tximeniak su hartu zuen. Honen ondorioz, teilatua eta sabaiak hondatu ziren baita bigarren pisuko logela bat ere. Suhiltzaileak etorri ziren eta bertan egon ziren zenbait orduz. Etxearen nagusiak dioenez, "ez dakigu suak nola hartu zuen bainan eskerrak han zeudenari deus gertatu ez izana".

**EKAITZA TABERNA**

Asteburuetan kontzertuak  
Larunbata 9, 11,30etan:  
**IGUANA y los JUMILES**  
Igandea 10, 8,30etan: **BALDIN BADA** eta **RIGOR MORTIS**

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • © 450991 • **DONEZTEBE**

**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

**SANTAMARIA**  
Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibelego aldetik.  
Asteburuetan Itxia dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**



**Malerreka**

## Beintza-Labaiengo lur sailak biltzeko lehen pausuak ematen ari dira

Aholkularitza Batzorde bat osatzeko bilera burutuko da martxoaren 13an Herriko Etxean

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo lur sailak biltzeko (partelen kontzentrazioa) lehen pausuak ematen ari dira. Otsailaren 26an, Nafarroako Gobernu eta Herriko Etxeko ordezkariak bildu ziren eta datorren asteazkenean, martxoaren 13an, bilera bat egitea proposatu zuten.

Bilera honen helburua, gai honi buruzko Aholkularitza Batzorde bat osatzea izanen litzateke. Lehendakaria, Beintza-Labaiengo alkatea izanen da. Berekin batera, Nafarroako Gobernu hiru teknikari izanen dira batzorde horretan, bi nekazaritza sailekoak eta bertzea ingurugiro sailekoa. Batzordeko gainerako partaideak, gai honen



Narbarteko inñauterietan eskoziar talde hau agertu zen

inguruan interesa duten herritarrak osatuko dute. Lau eta hamabi lagun artean izanen omen litzateke korpuru egokia. Batzordea osatzerakoan, lehen lana lur sailak sailkatzea izanen da, maila ezberdinen arabera.

### 6 milioiko udal defizita iaz

1995eko kontuak onartu ditu Beintza-Labaiengo udalak. 22.295.000 pezeta sartu ziren eta 28.386.000 pezeta gastatu. Beraz, 6.091.000 pezetako defizita. Baina halere,

banketxean bertze urtetik sobratua 9.146.000 pezeta ditu Beintza-Labaienek, eta orain, kontuak egin ondorekin, 3.045.000 pezetak gelditzen zaizkio berrekin.

*ttipi-flash*

#### ❖ Oitzko

Herriko Etxearen moldatze lana Urrotz anaiek eginen dute 21.993.507 pezetan truke.

#### ❖ Donamariako

Herriko Etxearen konponketa lanak Mutuberria anaiek egingen dituzte. Bi eskaintza aurkeztu ziren eta beraiena izan zen merkeena (21.041.709 pezeta).

#### ❖ Beintza-Labaiengo

Herriko Etxeko zinegotzia zen Marcos Telletxeak dimisioa aurkeztu du azken udal batzarrean. Bere ordez, Jose Martin Mindegia izanen da zinegotzi berria.

## Emakumearen Eguna larunbatean ospatuko da Zubietan

**AINHOA MUTUBERRIA**

Bizi garen herrialde honetan emakumearen eguna martxoaren 8an ospatzen da, egutegian beltzez markaturik egon arren. Aurten, ostiralean suertatu zaigu, baina geuk zubietarrok larunbatean egingen dugu, azkeneko bi urteotan bezala, besta egiteko egun egokiena baita.

Afaldu ondorekin Amaia Zubiriaren arteari esker, folklore euskaldunaren doinu

eziak gozatuko ditugu. Eta gero... dantzaldia! Emakumez osatutako iazko talde berarekin, *Beti Prest* hain zuzen. Besta hau, herriko ohitura bihurtzen ari zaigula dirudi; hortaz, gauza on guztiei bezala, honi ere eutsi beharko diogu bide zuzenean segi dezan.

Udalak 5.000 duro eskeini dizkie emakumei ekintza hau antolatzeko, joan den urtekoaren erdia. Hain-

beste jende biltzen denez, diruaren beharretan ez gaudela pentsa daiteke, baina edozein laguntza beti ongi etorria da. Bai kanpotarrek ere parte hartzen badugu halako ekitaldian, azkenean gu geuk sortutako dugu gure kultura propioa.

### Gazteluko ostatua...

moldatzen ari dira. Orain lehen pisuan dagoen barra sotoan partatuko dute.

**TXEMA ALDABE**

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, azken urte honetan euskara teknikaria izan den Jose M<sup>a</sup> Arakamak kargua utziko du. Hau dela eta, hurrengo deialdi ofiziala egin arte lauzpabortz hilabete pasatuko direnez, hurrengo hiru hilabeterako euskara teknikaria kontratatzea erabaki du Malerreko Mankomunitateak. Horretarako, langabezian dagoen bertako

bat aukeratuko da INEMetik eta frogatuko bat egingen zaio.

Deialdi ofizialari begira, Langarra taldeak eskatutako baldintza, hau da, lanpostua fijo egitea, ez du kontuan hartu Mankomunitateak. Erakunde honek ez du beharrezkoa ikusten lanpostu hau finkoa izatea eta sei hilabeteko edo, gehien jota, hiru urteko kontratuak eskainiko ditu, deialdia egiterakoan.



**Elgorriaga**

## Saneamendu lanetarako eskaintzak aurkezten ahal dira

Martxoaren 20an akituko da proposamenak aurkezteko epea

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako ur-hornidura eta saneamendu sareak berri-tzeko lanak egiteko eskaintzak aurkezteko epea zabaldu du Elgorriagako udalak. Proiektua Santiago Sainz de Terreros arkitektoak idatzi zuen 1992ko urte bukaeran eta azken moldaketak aurten egin zaizkio, ur-tarrilaren 12an.

### PROPOSAMENAK MARTXOAREN 20A ARTE

Proposamenak sibre itxian aurkeztu beharko dira, 1.853.722 pezetako fidantza utziz. Lizitazioaren prezioa 92.686.117 pezetakoa izanen da goienez eta, behin lanak



Elgorriagako ur-hornidura eta saneamendu lanak ematerakoan zortzi hilabeteko epea izanen da akitzeko

emandakoan, zortzi hilabeteko epea izanen da hauek akitzeko. Proposamenak aur-

kezteko epea martxoaren 20an akituko da. Gogoratuko denez, lan hauek Hirurteko

Plangintzaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio sailak.

### Donamaria

## Mus txapelketa akitua eta palakoa akitzean

Ricardo Sagaseta eta Santi Migeltorenak osatutako bikoteak irabazi du Donamariako mus txapelketa, finalen Jesus Sagaseta eta Serapio Sagasetari gailendu ondok. Guztira 20 bikote aritu ziren txapelketan.

Musekoa akitu da eta pala txapelketa ere akitzeko puntuan da. Mus eta pala txapelketetan parte hartu dutenek afaria egingen dute datorren larunbatean, martxoaren 16an, Herriko Ostatuan.

**Arano**

## Aurtengo ihauterietan inoiz baino partehartze haundiagoa izan da

Zomorroak auzoz auzo ibili ziren, zagidantzaren aurretik

XABIER ETA DAVID

Otsailaren 11n ospatu genituen herriko ihauteriak edo karnabalak inoiz baino partehartze haundiagoa nabaritu genuelarik.

Berrogei bat 'zomorro' bildu ziren, ohizkoa den bezala, goizpartea trikitixaren laguntzarekin baserri-baserri eskean pasatzeko. Zomorroek goizeko 7,15etan egindako gosari tikiarekin eman zioten hasiera



egunari. Segidan Suro auzora abiatu ziren, handik Arranbidera, Bentaberrira eta, azkenik, Beheko herrira igoz ibilbidea San Roke elkartearen bukatu zuten. Zomorro bazkaria bertan egin zen. Arratsaldean zagidantza egin zuten zomorroek herri sarreran hasi eta plazan bukatuz. San Roke elkarte-ko afalondorean, Jon Mari eta Xabierrek alaitu zuten jendetza.



Goizueta

## Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala herrian ospatuko da

Martxoaren 24an ospatuko da Lubineko frontoian, 'Xalto' ren heriotzaren 25. urteurrena gogoratuz

ESTEBAN AROZENA

Bere historia osoan bigarren aldiz Nafarroako Bertsolarien txapelketaren finala gure herrian ospatuko da, martxoaren 24an, Lubineko frontoian, arratsaldeko 4,30etan hasita.

Baigorri eta Atarabian burututako, eta Altsasun eta Beran burutu beharreko saioetatik aterako dira hemen kantatuko duten zortzi finalistak. Hauen lana ondorengo hau izanen da: hiruna bertso zortziko haundian; hiruna zortziko txikian; beste hiru sei puntuko neurrian; bi punturi erantzun; eta bukatzeko gartzelako lana, hemen neurri librean bes-



Iban Loiarate eta Xabier Apezetxea

te hiruna bertso kantatuko dituztelarik.

1996ko finala Goizuetan izatearen arra-

zoietako bat zera da: aurten dela Andres Narbarte 'Xalto' ren heriotzaren 25. urteurrena. Herriko bertsozale guztientzat hain garrantziko den urtebetetze hau kontutan hartuta, ahalegin berezia egin omen du udalak finala hemen ospatadin.

### Pilotari gazteak

Herriko pilota eta pilotarien berriak askotan agertzen dira orri honetan. Salaberria, Apezetxeak, Olaiolak... Oraingoan ere, gai hau aipatu beharrean gaude, baina ez "betikoen" izenak emateko, hauen atzetik datozenenak baidzik. Oraindik ez dute

garaipen ikaragarririk lortu, punta-puntan ibili arren. Otsailaren 17an Nafarroako Neguko txapelketaren finala jokatu eta galdu zuten Labriten 10 urteko bi mutiko hauek. Finalaurrean berriz, Retegi eta Arretxeri aisa irabazi zieten.

Iban Loiarate eta Xabier Apezetxeaz ari gara, askoren ustez goian aipatu ditugun horiek hainbesteko pilotariak izan daitezkenak urte gutxi barru.

### Liburutegia

Hilabete mordo batean itxita egon ondoren, ostegun arratsaldero 6etatik 7etara irekitzen du Guraso Elkartek bere liburutegia.

Areso

## Pake-Toki elkarteko mus txapelketaren finala jokatu da

Kiko Aldaregia eta Jose Ramon Etxarri irabazle

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Beste urte batez mus txapelketa antolatzen duen Pake-Toki elkarteak. Bederatzi bikotek jokatu zuten eta finala otsailaren 24an izan zen. Irabazleak Kiko Aldaregia eta Jose Ramon Etxarri suertatu ziren. Afari eder baten ondoren, sari banaketa egin zen, izugarriko sariekin: erlojuak, ardoak, koñak frantsesa... Bikote



Pake-Tokiko mus txapelketan sarituak suertatu direnak

Josefeto

guztiek beraien saria jaso zuten.

**Dantza taldea**  
Dantza talde gazte bat

sortu da, 5 eta 7 urte arteko bederatzi umez

osatu. Asteazkenetan ordu batez aritzen dira dantzak ikasten. Erakusleak Jaione eta Leire herriko dantzari gazteak dira.

### Soinketa ikastaroa

Lehenbiziko aldiz antolatu da Areson eta hamar lagun biltzen dira ordubetez, astean hiru egunetan.

### Idazkaritza

Idazkaritzan jendea sartzeko ordutegi berria 12etatik 1,30etara izanen da.



**Leitza**

## Eskola atzealdeko estalpea erori da

Ardurak eskatzerakoan, ordea, inork ez du bere gain hartzen ez beharra

JOSEBA AZPIROZ

Otsailaren 22an, arratsaldeko 3,30ak baino lehenxeago eskolako atzealdeko estalpea bertan behera erori zen. Minutu batzuk lehenago neska batzuk bertan egonak ziren. Ba ote zen inor azpian? Hura zen larritasuna. Abisua jaso bezain laister jende franko bildu zen. Bi eskabadoreen laguntzaz elur guztia mugitu eta txapapeak ongi miatu arte ez ziren gelditu. Zorionez ez zegoen inor azpian. Eta orain ardurak eskatu behar. Estalpea jarri zuen enpresan garai hartan lan egiten zuen batek fabrikantea ekarraziko zuela, hemen gertatutakoa inon ez dela gertatu... Fabrikanteak berriz, materialen kalitatea ona dela, instalazioa gaizki egiten zela, ikerketa egiten dutela... ikusi behar. 2.175.257 pezeta kosta zen estalpea jartzea eta lurrean dago orain.



Larritasun ederra izan zen lehenbiziko momentuetan

Arg.: Joseba

### Familiari buruzko hitzaldiak

Guraso Katolikoek Elkarteak familiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu martxoaren 20, 21 eta 22rako. Hitzaldiak arratsaldeko 7,30etan izanen dira Jubilatuen Egoitzan. Hizlariak Vicente Madoz eta Pedro Arbeloa psikologoak eta Xabier Andonegi, Gipuzkoako Gazteriaren arduraduna izanen dira.



Hara hemen Sorobarrenen hiru urteko ardiari zesarea egin eta kendu zioten monstroa. Bi ahariko elkarri isatsiak: zortzi hanka, lau belarri, hiru begi, bi aho, mingain bat eta isatsa.

*ttipi-flash*

### ❖ Irratigintza ikastaroa

Martxoaren azkeneko bi asteburuetan (22-23 eta 29-30ean), Euskara Batzordeak antolatuta irratigintza ikastaro bat egiten da, Xorroxin Irratiko Joseba Igarabidek emana. Ikastaroa denentzat irekia da eta izena emateko tokia eta epea aurreaxeago zehaztuko ditugu.

### ❖ Truk txapelketa

Martxoaren 16an, arratsaldeko 7etan Aurreran, azken hiru asteburuetan jotzen ari den truk txapelketaren finala jokatu da. Ondoren, partehartzaileek bertan afalduko dute.

### ❖ Kotxe karabana

Martxoaren 16an, arratsaldeko 5,30etan Presoak Euskal Herrira lemapean Iruñean izanen den manifestaldira joateko kotxe karabana aterako da plazaetik arratsaldeko 4etan.



**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735  
Irun © (943) 622305

- Era guztietako aseguruak
- Etxerakoak, Bizitzakoak,
- Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA  
Tel. (948) 61 09 19  
2861 Erregistro zenbakia

**GRUPO VITALICIO SEGUROS**

### ttipi-ttapa

6.200 harpidedun 21.000 irakurle

ttipi-ttapaekin zure publizitatea  
zonako sukalde-xoko guztitan izanen duzu

**GAZTELU  
ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 •  
LEITZA





# Doike, Baztanen euskara berpizteko taldea sortu da

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Odol-emaileen besta igande honetan burutuko da Elizondon

**JOSEBA IGARABIDE**

Baztanen Euskara Suspertzeko sortutako talde zabala bilerak egiten ari da. Doike izena paratu diote eta hogeiren bat pertsona elkartzeko dira dagoeneko. Oraindik jende gehiago elkartu eta bilduko dela espero dute. Bilerak leku publikoetan egiten dituzte, denentzat zabalik direla adieraziz. Euskararen erabilera zabaltzea da beraien helburu nagusia.

## Odol-emaileen besta igandean

Martxoaren 10ean Elizondon, Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Odol-emaileen besta ospatuko dute. Gonbidapena luzatu diete odol emaile egin nahi dutenei izena eman dezaten. Arratsaldeko 2etan Santxotena jabetxean bazkaria izanen dute. Ondotik elkartearen txosten bat irakurriko da eta dominak banatuko dira.

## Emakumearen Eguna

Martxoaren 16an Emakume langilearen bazkaria egin behar dute Lekarozen. Lekarozen bizi edo bertakoak diren emakume guztiak joan daitezke.

koak diren emakume guztiak joan daitezke.

## Istripua Belaten

Otsailaren 27an hiruro autoen arteko istripua izan zen Belaten. Emakume bat erite txera eraman behar izan zuten.

## Haur kantu txapelketa

Haur kantu txapelketa izena eman nahi duenak Xorroxin irratira deitu behar du lehenbailehen.

## Kanpainak arrakasta guti

Hauteskunde kanpainak ikusmin guti sortu zuen, nahiz eta Baztanen talde politiko gehienak egon diren. CDN, EA, PNV eta HB Elizondon eta UPNkoak Oronoz-Mugairin.



Irurritako Olari ostatuan jokaturako IV. mus txapelketan Tiburcio Dorregarai eta Peito Aleman suertatu ziren irabazle

## Baztandarren Biltzarrak junta berria aukeratu du

Momentuz, lehen-dakaririk gabeko junta izanen da, ez baitzen inor horretarako prest azaldu otsailaren 23an egindako batzarrean. Halere, jende berria eta gaztea sartu da bokalia ezberdinak osatzera. Beraiekin batera, orain artean zuzendaritza batzordean egondako jendea izanen dute, lehen pausu hauetan laguntzeko. Batzorde berriaren eginbehar nagusia uztaileko Baztandarren Biltzarra antolatzea izanen da, batez ere bazkalondoko jaialdia. Animo bada!



Uztaileko besta antolatzea da junta berriaren lehen eginbeharra

*ttipi-flash*

## Alkateorde berritza

UPNko Pedro Antonio Zapata Zaldúa izanen da alkateorde berria, alderdi bereko Gaspar Castellano kargua utzi ondotik. Zinegotzi hau Gobernu Baztordetik ere kendu dute.

## Guraso eskola

hasi zuten otsailaren 28an Irurritako 20 emakumek. Haizeako kide bat etorriko zaie nerabezaroaz solastera.

## Iruritan txistu ikastaroa

Izena lehenbaitlehen eman behar zaio Maribel edo Montseri.

**Eskisaroi  
jabetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

ARROPA DENDA



**CERVANTES  
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**BAZTAN**

**FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580373 • (908) 776176



# Pedro Mari Esarte da Iturri Ederra Ur-elkarteko lehendakari berria

Halere, joan den urteko kontuak eta aurtengorako aurrikusitako tarifa igoera ez zuen onartu batzarrak

TTIPI-TTAPA

Iturri-Ederra Ur-Elkarteko batzarrak Pedro Mari Esarte aukeratu zuen lehendakari bezala. Lehendakariordea, azken bi urtetan lehendakaria izan den Remigio Lizasoain izanen da. Joan den urteko kontuak eta aurtengo tarifa igoerak, ordea, ez zituen onartu batzarrak. Iazko balantzean 14.824.424 gastuak eta 13.207.797 pezetako sarrerak ageri ziren. Kontu hauek ez ziren onartu, Balleko Etxetik kobratu beharreko kopuruan interesen igoera agertzen ez zelako. Balleko Etxearen zorra, 1984tik honat eta interesak kontuan hartu gabe 4.731.189 peze-



Pedro Mari Esarte, Iturri Ederrako lehendakaria

takoa da. Kontadorearen mantenimendurako tarifa 18tik 20 pezetara garestitzea ere

ez zuten onartu 80 batzarkideek, afera gaitzerrendan ez baitzen agertzen.

## Elizondon kanpalekua egiteko Arau Subsidiarioak aldatu dira

Elizondoko Merkaturuzelai inguruan turistendako kanpalekua egiteko Baztango Arau Subsidiarioak aldatzea onartu du Nafarroako Gobernuak.

Kanpalekua 18.525 m<sup>2</sup>ko azalera izanen du, 334 dendetzako lekuarekin. Kirol eta zerbitzu instalazioak turistek ez ezik herritarrek ere erabili ahal izanen omen dituzte. Bertalde, kanpalekurako bide bazterean 18 etxebizitza egiteko asmoa dago. Horretarako lur urbanizagarria izendatu dute.

## ttipi-flash

- ♦ **Almandozen**  
bestetarako maior-domoak (antolatzailleak) aukeratzeko batzarrea egin zuten joan den larunbatean.
- ♦ **Anizen**  
mus txapelketa martxan dago. Asteburutan jokatzeko Anizko elkartearen eta hemeretzi bikotek parte hartzen dute.
- ♦ **Intsumitu epaitua**  
Javier Bengoetxea Goñi Arraiozko intsumitua otsailaren 20an epaitu zuten. Sententzia ez da oraindik ezagutzen.
- ♦ **Komiki erakusketa**  
zabalik izan da otsailean zehar Arizkunenea Kultur Etxean.
- ♦ **Iruitako**  
Gure-Kaiola elkarteko mus txapelketa hemeretzi bikote ari dira norgehiagokan.

**FOTO MENDI ELIZONDO**

Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etxez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera haundia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak; t/b, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford...

Argazki Erreproduktzioak, Albunak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agiriaren Plastifikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25  
31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55  
31700 ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

Baztanen... **ESTHER** ...Eta Iruñean...

LOREDENDA • GARDEN CENTER

**ESTHER FUNERARIA**

Hilkutzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

**IRACHE TANATORIOA**

Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

M<sup>te</sup> Dolores Miñana  
**TOPOGRAFA**

**NEURKETA • PLANOAK**

Lur neurketak, Luberriak Plantazioak, etab...

Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143  
ELIZONDO

**ERTZILLA**

**ALBAITARITZA KONSULTA**

Txakur eta katuendako

**ORDUTEGIA**

10etatik Letara eta 4etatik Setara  
Larunbatetan 10etatik Letara

Santiago 30, ☎ 580627  
Larrialdiak: ☎ 580762  
**ELIZONDO**



Sara

## Hartzik ez zen agertu aurtengo ihauterietan

Larunbatean, 30 bat gazte eskean ibili ziren Ihalar, Lehenbizkai eta Xarbo Erreka auzoetan

MIXEL ETA JACQUELINE

Ihauteriak otsailaren 17 eta 18an ospatu ziren. Eguraldia lagun, hogoita hamar bat gazte ibili ziren larunbatean Ihalar, Lehenbizkai eta Xarbo Erreka auzoetan. Arratsean, Herriko Etxeko Edantegian bildu ziren Maixa eta Itziar trikitilarien inguruan. Igandean plaza airostuzuten. Eguerdian irian haurrak eta gazteak finkatu bezala elkartu ziren ibilaldia eta dantzen eskaintzeko, ahan-tzen gabe Zan Pantzarren erretzea. Aurtan Hartzik ez zen azaldu, lo pisu



Ihauteriak giro onean joan ziren

batean zela diote. Agian heldu den urterako iratzarriko da!

**Presoak gogoan**  
Presoak Euskal Herri-

rat kanpainaren kari, martxoaren 17an Larrunerat igaitea an-

tolatu da. Hitz ordua goizeko 10etan da, Sarako plazan.

### Xoko lehiaketa

Ohiko Xoko lehiaketa hasiko da martxoan Arrieta trinketean. Parte hartu nahi duenak dei dezala laister zenbaki huntara: 59-54-22-06.

### Ikastolaren iragarkia

Ohain ikastolaren biltzar nagusia martxoaren 22an iraganen da, arratseko 7etatik aitzin, Gazteen Etxean. Buraso guztiak deituak dira kari hontera.

Zugarramudi

## Euri eta kazkabar erauntsiei aurre eginez Ihauteri alaiak izan dira

Egun bakoitzerako musikari ezberdina izan zen

MARGARI ETA KORO

Ihauteri alaiak bainan eguraldi aldetik gogorak izan dira aurtengoak. Seguraski horregatik mozorratutako gehienak eskiatzaille edo arrantzalez jantziak ikusi ziren. Egun gogorrena astelehena izan zen, euri eta kazkabar eraunsi ikaragarri haiekin. Egun hau, gainera, mendiko baserrietako eguna da eta bazkaltzera 4,30etan agertu zirela erratea nahikoa da. Hori

bai, nahiz eta halakotenorea izan, Pikatxarreko bordako Genovevak mahaia prest eta bazkaria bero-beroa zeukan.

Aurtan, azken momenturarte ez zen akordiolarik, eta pentsa zer diren ihauteriak musikarik gabe... bainan ondarrean ezin hobea: egun bakoitzean musikari desberdin bat eta horietatik bat *Sustraita* taldeko akordiolaria.

Ohiturak ez dira al-

datu eta herriko jate-txe, ostatu eta elkarte guztietan besta egin zen bazkari edo afari moduan, bereziki aipatuz Pikatxarreko bordan egiten den bazkaria. Egun horretan baserri lasai hau jatetxea bihurtzen da, 30 bat laguneri beren tortilla, txistor, txingar eta gasnak eskeiniz.

**Mozorroak eta dantza, baserrietako eskean falta ez diren bi ezaugarri**





**Saraldea**

# Xareta proiektuan elkartu dira Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi

Lezetik lezera, 15 kilometroko ibilbidea antolatu da turismo kulturala eta kirola egiteko aukera eskeiniz

TTIPI-TTAPA

Xareta izena duen proiektuan elgarretaratuak dira Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi herriak. Aurkezpen ofiziala Sarako Herriko Etxean egin zen otsailaren 24an, eta hiru herrietako agintariek batera, han zeuden ADEPFO eta Nafarroako Gobernuordezkariak.

## ELKARLANEAN TURISMOA INDARTZEKO

Xaretako lurraldeak biltzen du dagoeneko mundu bat jende. Larrungo trenak, errate baterako, 280.000 bisitari garraiatu zitueniaz, Sarako harpeetatik 104.000 pertsona pasatu ziren, Zugarra-



Xaretaren aurkezpen ofizialera ADEPFO, Nafarroako Gobernu eta hiru herrietako agintariak agertu ziren.

murdikotik 75.000, eta Urdazubikotik 30.000 inguru. Hemendik aitzinerat oraindik gehiago indartu nahi dira dauden posibilidade-

ak, eta horretarako, proiektu andana jarriko dituzte martxan. Hiru lezeen arteko komunikazioa hobetzeko, autoendako bidea egi-

nen da eta Xaretako lurraldean dauden zerbitzu eta turismo eskeintza guziekin prospektu bakarra eginen da hiru herrientzat. Gai-

nera, hiru lezeak kurrizteko zaldiz tiratutako orgak erabiliko dira eta txartel bakarra aski izanen da hiru lezeak eta Zugarramurdi antzerkia ikusteko eta Larungo trenan ibiltzeko.

## PRESTAKUNTZA IKASTAROA

Turista eta bisitarien harrera egokia egiten ikasteko, hiru herrietako 26 pertsonak parte hartu dute egin berri den prestakuntza ikastaro honetan. Historia, geologia, base-ri mundua eta arkitectura... hoiexek izan dira, bertzeak bertze landu dituzten gaiak. Horretarako, goi mailako irakasleak izan dituzte, gai guzi hoietan jakitun direnak.



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562  
IRURITA - BAZTAN

## Sukalde eta Bainu Mobleak

*Egoki-ren banatzaile baimendua*



## MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313  
ELIZONDO



## JATETXEA

Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza** →

## HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



## MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinarako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60





## EZKONTZAK

Javier Gartziaarena Etxeberria eta Edurne Otermin Baleztana, Berastegi eta Leitzakoa, otsailaren 17an.  
Jose Ariztegi Mariezkurrena eta Ainhoa Bereau Altxu, Ituren eta Irungoa, otsailaren 17an.

## JAIOTZAK

Aimar Oskariz Ursuegi, Elizondokoa, otsailaren 9an.  
Josu Zabaleta Unanua, Leitzakoa, otsailaren 10ean.  
Adeline Mousseau, Sarakoa, otsailaren 8an.  
Iñigo Oskoz Gago, Doneztebekoa, otsailaren 22an.  
Maidier Olaziregi Urkiola, Berakoa, otsailaren 9an.  
Javier Escagues Dozagarat, Berakoa, otsailaren 14an.  
Irati Arbelaiz Iguzkiagirre, Igantziakoa, urtarrilaren 18an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako "Está creciendo" liburua daukagu.

**IRUÑEKO KUTXA**  
F. RUIZ LÓPEZ ALZOLA

## HERIOTZAK

M<sup>a</sup> Rosario Larratzea Ariztia, Le-karozkoa, otsailaren 4an, 88 urte.  
Nicolasa Fidela Garbalena Mendikoa, Gartzain, otsailaren 15ean, 97.  
Miguel Alberro Zugarramurdi, Gartzain, otsailaren 16an, 73 urte.  
Perpetua Mancho Larrat, Elizondon, otsailaren 16an, 88 urte.  
M<sup>a</sup> Socorro Puig Burgueño, Elizondon, otsailaren 18an, 83 urte.  
Braulio Jaimerena Lafarga, Elizondokoa, otsailaren 20an, 93 urte.  
Martina Fidela Dufurrena Etxenike, Erratzu, otsailaren 24an, 60.  
Jose M<sup>a</sup> Maritxalar Lastra, Lesakakoa, otsailaren 18an, 85 urte.  
Feliza Lafont Arizkorreta, Sarakoa, otsailaren 17an, 89 urte.  
Xemartin Leizagoien, Sarakoa, otsailaren 23an, 75 urte.  
Jose Goñi Otxandorena, Beintza-Labaien, otsailaren 1ean, 65 urte.  
Martina Agerralde, Sunbillakoa, otsailaren 28an, 83 urte.

## ZURETZAT ERRAZAGO IZATEKO, PEDRO GARMENDIAN IAT-ITVa HASIERATIK AKABERA BITARTE MOLDATUKO DIZUGU.

■ IAT-ITVaren **AURRE DIAGNOSIA** eginen dizugu estazio ofizialean erabiltzen dituzten makina berdinekin.

■ IAT-ITVa pasatu ahal izateko zerbait konpondu behar dela ikusi badugu, **AURREKONTUA DOHAINIK** eginen dizugu.

■ Aldatu behar diren pieza guzietan **%25eko DESKONTUA** eskaintzen dizugu.

Gu arduratuko gara:

- Zure etxetik autoa biltzeaz
- Tasak ordaintzeaz
- IAT-ITV ofiziala pasatzeaz
- Autoa berriro etxera bueltatzeaz

**ETA NAHI BADUZU IAT-ITV OFIZIALA EGUN BATEZ PASATUKO DIZUGU**

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

**TALLERES SANTESTEBAN**

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

**SEMPER HNOS., S.L.**

Irun-Iruñea Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**



**RENAULT**

**EZ GALDU MINUTU BAT ERÉ PEDRO GARMENDIAN GUZIAZ ARDURATUKO GARA.**



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak .....112/088

Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

Anbulatorioak

Irun ..... 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz ..... 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

FUNERARIA

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi ..... 592255

Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarari ..... 515018

Aberiak:

Iberdrola ..... 450335 / 450336



## Elur urte, gari urte

Horrelaxe dio aspaldiko esaearak. Eta egia erran, elurteak, bertze gauzen artean, kontu kantari aritzeko bidea ere eman dio jendeari. Hona zer kontatu eta kantatu digun Berako Joxe Lantz-ek duela 70 urte-edo, elurra ikusterakoan Berako haurrek kantatzen zutenaz oroitzuz: «Elurra, elurra, ez diuk hire beldurra, badiuk itxian artua ta egurra»

## Sagar ekoizleen elkarteak

Sagar ekoizleak, Nafarroako Mendialdeko Sagarraren elkarteak sortu nahi dute. Sagar-diak indartzea dute helburu, bai sagardorako sagar bariedadeetan eta baita jateko sagarretan ere. Horretarako, Iparraldeko Sagartzea elkarteekin eta Nafarroako Teknika eta Kudeaketa Institutuarekin harremanetan ibili dira idearen bultzatzaileak. Cederna Garalur garapen agentziak ere interesgarri ikusi du.

## Erretiratuen Elkarteak diruz lagunduko ditu Nafarroako Aurrezki Kutxak

Horien artean daude Arantza, Doneztebe, Etxalar, Igantzi, Leitza eta Lesakako Erretiratuen Elkarteak

Nafarroako Aurrezki Kutxak diruz lagunduko ditu 6 herrietako Erretiratuen Elkarteak. Elkarte hauek 1.235 bazkide dituzte guztira eta guzi hoientzat 16 milioi pezeta ematea deliberatu du aipatu Aurrezki Kutxak. La-



guntza komenioa Donezteben izenpetu zuten alde guziekin otsailaren 28an eta Arku-

peak Elkarteko ordezkariak ere hantxe zuden. Elkarte honek ere hartzen ditu laguntzak,

bainan Nafarroa mailan lan egiten duten elkarteentzat dagoen dirulaguntzetatik.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## ttipi-ttapa Gida Komertziala 96

Gida honetan zure publizitatea sartuz, egon seguruko klienteak zure berri izatea errazago dutela. Aurreztu denbora eta dirua zure publizitatea **ttipi-ttapa**ren Gida Komertzialean sartuz.





# Eskualdeko pilotari gaztetxoak ederki ibili dira Nafarroako Neguko txapelketan

Julen Irazoki eta Markel Etxebeste beratarrak txapeldun izan ziren benjamin mailan eta bertze hiru bikote azpitxapeldun kategoria ezberdinetan

Eskualdeko pilota osasunez ongi dabilela gauza jakina da. Profesionaletan puntapuntan dabiltzan pilotari beteranoei haize berria ematera etorri zaie Mikel Goñi oroztarra. Afizionatutan ere, goi mailako eskulariak ditugu, profesionaletarako pausua emateko prestatzen ari direnak.

Ez da hor bukatzen, ordea, eskualdeko pilotarien baratza. Maila tikiagoetatik ere heldu dira kimu berriak eta horren erakusgarri izan zen otsailaren 17an, Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu ziren Nafarroako XIX. Neguko txapelketaren finalak.

Benjamin mailan, Berako Gure Txokoako Julen Irazoki eta Markel Etxebestek ira-



**Goizuetako Iban Loiarte eta Xabier Apezetxea eta Berako Julen Irazoki eta Markel Etxebeste: benjamin mailako finalistak**

bazi zieten Goizuetako Umore Onako Iban Loiarte eta Xabier Apezetxeari.

Infantil mailan, finala galdu zuten Iban Zubieta eta Juan Mari

Altzuguren beratarrak.

Jubeniletako finalerako, azkenik, Txarutako Goñi eta Otxandorenak eskuratua zuten txartela, baina ez zuten jokaterik izan,

batek profesionaletan debutatzen zuelako eta bertzea eskuko minarekin. Altzugarai eta Retegik jokatu zuten eta ezin izan zuten finala irabazi.



## ❖ Euskal Herriko sokatira txapelketan

600 kiloko kategorian bikain ari dira Areso eta Beti Gazte taldeak. Lesakarrak lehen multzoan ari dira eta hau idazterakoan jokaturako bi jardunaldietan tiraldi guztiak irabazi dituzte. Aresoarrak bigarren multzoan ari dira eta bigarren saioan, tiraldi gehienak irabaziz lehenak gelditu ziren. Horrela segitzekoan finalean ikusiko ditugu biak eta akaso, orain bi urte Amaiurrek irabazitako txapela eskualderako berreskuratuko dute.

## Martxoaren 31n burutuko da Lesakako IV. Herri laisterketa

Martxoaren 31n burutuko da Lesakako IV. Herri laisterketa, Batzoki elkarteak, Caja Rural de Navarraren babesarekin eta Lesakako Udalaren laguntzarekin antolatua.

Probari goizeko 10etan emanen zaio hasiera aurrebenjamin mailarekin eta proba nagusia, berriz, 12,30etan abiatuko da. Hone tarako izena laisterketa hasi baino ordu t'erdia lehenago ematen ahal da. Parte hartzea debaldekoa izanen da

eta partaide bakoitzak kamiseta bat eskuratuko du.

Maila ttiikienetan, aurrebenjaminak eta neska benjaminak 500 metro egin behar dituzte; maila bereko mutikoak eta alebin mailako neskek 1.000 metro; alebin mailako mutikoak eta infantil mailako neskek 1.500 metro eta maila bereko mutikoak 2.000 metro egingen dituzte.

Proba nagusian, kadete mailatik heldu edo beterano maila bitarte-

koak aterako dira. Kadete mailako neskek 2.000 metro eta mutikoek 4.000 metro egin beharko dituzte. Junior mailako neska-mutilak eta senior eta helduen mailako emakumeek 6 kilometro egin behar dituzte eta senior nahiz helduen mailako gizonak, federatuak nahiz herrikoiak, 8.000 metro. Gabriel Garin, Rafa Maritxalar, Oskar Iriarte eta Joseba Sarriegi korrikalariak proban parte hartzeko asmoa adierazi dute.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Asier Galarregi

Oieregiko borrokalaria.

Inguru honetan kirol ezezaguna bada ere, Oieregiko mutila hirugarren gelditu zen Espainiako borroka greko-erromatar txapelketan. Kirol olimpikoa denez, ea Asier Atlantan ikusten dugun uda partean.



### Julian Retegi

Eratsungo pilotaria.

Lesio bat medio ezin izanen du eskuz banakako txapelketan parte hartu. Bere jarraitzaileek ez ezik, kontra dituenak ere ikuskizun eder bat galduko dute. Datorren urtekoan izan beharko du.



DATUAK.....

- ❶ Mikel Goñi pilotari oronoztarrak 19 urte beteko ditu apirilean.
- ❷ Otsailaren 17an Tolosan debutatu zuen pilotari profesional bezala. Bi urteko kontratua sinatu du Asegarce enpresarekin.
- ❸ Jubeniletatik pasatu ondotik, 4-5 partidu bertzerik ez ditu jokatu afizionatu mailan.
- ❹ Lehen garaipena Altsasun lortu zuen otsailaren 25ean, Errandonearekin bikote eginez Gorostiza eta Errastiren kontra.
- ❺ Asegarcek kuadroa berritu behar duela eta, aukera aunitz ikusten die eskualdeko pilotariei.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
Josu INZIARTE

Mikel GOÑI:

# «Afizionatutan erretzeko beldurrez pasatu naute profesionaletara»

Mikel Goñi, Oronoz-Mugairiko pilotari gazteak bi partidu jokatu ditu dagoeneko profesional mailan, 18 urte bertzerik ez izan arren. Inork guttik espero zuen pausu hau hain abudo ailegatzea, ezta Mikel berak ere: "Asegarcerekin entrenamenduak egiten ari ginen eta uste ginuen udaran debutatuko genuela". Goñiren ustez, ordea, bada arrazoirik profesionaletarako jauzi hori egiteko. "Afizionatutan partidu sobera jokatzen da eta Asegarcekoak ni hor erretzeko beldurra zuten eta lehenbaitlehen profesionaletara pasatzea erabaki zuten".

Zortzi urtetan hasi zen Mikel Goñi pilotan eta maila ttikietan hainbat sari eta txapel bururatu ditu. Jubenil mailan, ETB-DV txapelketa eta afizionatutan jokatu dituen partidu guti horietan, Elgoibarko txapelketa gogoratzen ditu lorpen nagusi bezala.

**«FISIKOKI HOBETU BEHARRA DAUKAT»**

Pixkanaka pilotari bezala hobetu behar duela argi du oronoztarrak. "Denek erratan didate fisikoki hobetu beharra dudala. Jube-

❶ "Eskualdean pilotari aunitz daude profesionaletarako saltoa emateko moduan: Apeztegia, Olaizola, Almandoz, Barriola, Otxandorena... punta puntan daude"



Ezker gantxoak eta eskuineko kolpea onak dituela uste du Mikel Goñik

niletan ordu erdi batez bukatzen da partidua eta orain badira ordu edo ordu eta kuartoko partidua". Bere ezauzgarri nagusia berriz, ezker gantxoak dela dio Goñi II.ak. "Nere atzelariak tantoa dominatzea, aunitz jotzea eta kantxa kubritzea nahi

du, aurrelari guztiak bezalaxe". Kontrako aurrelarian gehien errespetatzen duena, "bizia eta habilidadea duena izatea da".

Debutaren egunean lau edo bortzgarren tantura arte arrunt nerbio-so zegoela onartu du, "badakizu korredoreak eta gainerakoek presioa somatzen duzu. Bigarren partiduan ere nerbio-so baina gutxiago". Profesionala izateak bizia erabat aldatu dio Mikeleri.

"Lehen, igandean partidua izan eta larunbatean ateratzen nintzen, baina orai, astean bi aldiz ateratzen ahal zara. Etxean edo kirola egiten egon behar duzu beti". Bere idoloa nor izan den galdetzerakoan ez du zalantzarik agertu Goñik: "Julian Retegi izan da eta izanen da nere idoloa. Onena izan da. Berari begiratu eta imitatzea saiatzen zara, baina zaila da bere mailara iritea". ■



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ETXALAR

#### ► Martxoaren 9an

gaueko 10etan,  
Herriko Ostatuan  
'Baila Nelly'.

#### ► Martxoaren 16an

gaueko 10,30etan,  
Herriko Ostatuan  
'Mahumak', Iparral-  
deko rocka.

### DONEZTEBE

#### ► Martxoaren 9an

Ekaitza Tabernan  
'Iguana y los Jumiles'.

#### ► Martxoaren

10ean Ekaitza  
Tabernan 'Baldin  
Bada' eta 'Rigor  
Mortis' taldeak.

## EMAKUME-EGUNA

### BERA

#### ► Martxoaren 7tik

10era Uxua taldeak  
antolatuta, egun guzi-  
tan erakusketa Kultur  
Etxean. Martxoaren  
7an 'autoestima'ri bu-  
ruzko hitzaldia eta on-  
dotik antzerkia.

Martxoaren 8an zine  
emanaldia 'Armas de  
mujer', eta ondotik  
afaria.

### LEITZA

#### ► Martxoaren 8tik

10era Tiantitoka talde-  
ak antolatuta. Martxo-  
aren 8an 'Autoestima'  
ikastaroa eta afaria.

Martxoaren 9 eta  
10ean argazki erakus-  
keta eta partxis lehia-  
keta. Martxoaren  
10ean 'Shirley  
Valentine' pelikularen  
emanaldia.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Salda barazki konfitatuekin

#### Osagaiak 4 lagunendako

• Oilasko baten hezurdura sal-  
da egiteko • 4 ahate hegala •  
ahate gurina, 4 goilarekada •  
8 porru • 2 tipul • 6 azenario •

#### Prestatzeko modua

Lehenik, oilasko hezurdurarekin  
salda egiten jarriko dugu. Gero,  
barazki guztiak xehe-xehe egi-  
nen ditugu (Juliana erara).

Segidan, kazula ba-  
tean ahate-gurina ja-  
rriko dugu eta xehetu  
berri ditugun barazki  
guztiak kazula horre-  
tara botako ditugu ez-  
ti ezti egin arte. Aldi  
berean, oilasko hezurdurarekin  
egin dugun salda iragazkitik pa-  
satuko dugu, eta gero, baraz-  
kiak botako ditugu salda horre-  
tara. Utzi egosten 15 minutuz  
eta egina dagoenean, ahate he-



Maritxu PORTU

Hotel Mugaire  
'Txino'koa  
• OIEREGI •

galak ere gehituko ditugu salda  
horretara. Gatza eman eta utzi  
egosten 10 minutuz.

Serbitzeko prest dago. on egin!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

• Zerrikumea (20 kilokoak):  
6.700 pzta.  
• Zerri gizona (95-100): 175  
pzta/kilo  
• Zerramak: 120-130 pz-  
ta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

• Aretze gizenak:  
• Idixkoak: Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 570  
1.koa ..... 550  
2.koa ..... 530

• Urruxak: Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 580  
1.koa ..... 560  
2.koa ..... 530  
Oharra: Prezio hauek 300-340  
Kg. kanalean dauzkaten idixko  
eta 200-250 kg. dituzten urru-  
xentzako.  
• Aretze tikiak  
(15 egun ingurukoak):  
Nabarrak: urruxak 22.000 eta  
idixkoak 26.000 Pzta.  
Mestizoak: urruxak 30.000 eta  
idixkoak 43.000 Pzta.  
Behi zaharrak:  
Behi nabar gizona: 390 Pzta./  
Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460  
Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,  
ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza  
• Bertako sagarrondoa 950.  
• Udareondoa 950 pzta.  
• Gereziondoa 1.050 pzta.  
• Aranondoa 1.050 pzta.  
• Muxika 880 pzta.  
• Urritza 880 pzta



### ❖ LANDAREAK ❖

• Porruak zientoa 400.  
• Tipulak zientoa 800.

## LARRALDEA

## SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Belatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

## ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)  
Faxa: 581274



## KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

### Auto konponketa


Autoa tailerrera eramatera-koan, hobe dugu zerbitzu horren baldintzak eta gure eskubide eta betebeharrak ezagutzea ustegaberen bat izatea baino.

Hori dela eta, hemendik aitzinera gauza batzuk kontutan hartuko ditugu, tailer-rrak eman behar duen informazioa, aurrekontua eta garantia, besteak beste.

- Lan orduko prezioa eta zerbitzuena ez ezik, tailer-rrak bistan izan behar du kanpoko lanen prezioak ere.
- Kontzesionarioen tailer-rrak ezik, tailer guztiak, etortzen zaizkien autoak hartzera beharturik daude. Ez bada horrela, salaketa jar dezakegu.

#### AURREKONTUA

Eskubide inportanteeneko bat aurrekontuarena da. Sinatzen dugun aurrekontuak hamabi eguneko balioa du eta bertan, auto, tailer eta gidariaren datuak agertzeaz gain, konponketaren prezio osoa agertuko da, tailer eta gidariaren sinadura ezinbestekoak direlarik. Guk uko egin diezaiogegu aurrekontuari eta gaur egungo tailerrek behin baino gehiagotan aztertze-ko eskatzen digute. Hala ere, ezeztatu ahal izateko, lehenik aurrekontu hori si-



Edozein konponketak 2.000 kilometroko edo hiru hilabeteko garantia dauka, bitartean beste tailerrera eramaten ez badugu, behinpein

natu beharko dugu, bertze tailerrera jotzeko aukera dugularik. Oroitu egin behar dugu autoa uztearekin batera, agiri bat eman behar digutela. Hori kontutan hartuta, aurrekontua aurkeztu ondotik tailerrek bertze aberria edo konpondu beharre-

*Aurrekontuak hamabi eguneko balioa du, konponketaren prezio osoa agertuko da eta tailer eta gidariaren sinadura ezinbestekoak dira.*

ko zerbait aurkitzen badu, horren aurrekontua eta gidariaren adostasuna beharko du konpontzeko.

#### GARANTIA

Edozein konponketak hiru hilabete edo 2.000 kilometroko garantia dauka, bitartean beste tailerrera eramaten ez badugu, behintzat. Garantia hori betearazteko, autoa hartu orduko konponketa horri dagokion faktura eskatuko dugu. Bukatzeko, behin autoa konponduta, hiru egun baino gehiagoz tailerrean egoten bada, tailerrek kobratzeko eskubidea duela aipatu behar da.

MIKEL BEZUNARTEA  
IRATXE ELKARTEKOA

## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ZINEA

### DONEZTEBE

► **Martxoaren 9-10ean** zine aretoan 'Estallido'.

► **Martxoaren 16-17an** zine aretoan 'Behiak'.

## MENDI IRTEERAK

### ELIZONDO

► **Martxoaren 10ean** B. Mendigoizaleak Aizkolegira.

► **Martxoaren 17an** Baztango Mendigoizaleak Adira.

## DONEZTEBE

► **Martxoaren 10ean** Mendaurrera.

► **Martxoaren 16an** Jabierera.

## KONTZERTUAK

### SUNBILLA

► **Martxoaren 16an** gaueko 11etan, Fondan 'Txakun'.

## ELIZONDO

► **Martxoaren 8an** Kasinoan, 'Dentera'

► **Martxoaren 15ean** Kasinoan, 'Iguana y los Jumiles'.

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Martxoaren 4tik 10era** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Martxoaren 11tik 17ra** Etxalar, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

► **Martxoaren 18tik 24ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.



## ETXEBIZITZAK

**BERA.** Legia karrikaren 15.ean, 4.D pisua salgai. ☎ 631232 edo (943) 397388.

**MALERREKA.** Borda bat erosiko nuke bere terrenoarekin. ☎ 451774.

**LESAKA.** Pisu bat alokatuko nuke. Hobe moblez-tatua bada, pertsona bantentzat. ☎ 943-456644 (eguerditan).

**BERA.** Pisua salgai. 80 m<sup>2</sup> plantan eta 40m<sup>2</sup> ganbaran. Erreformatu behar da. ☎ 630931 edo 943-624540.

**LESAKA.** Albisturkarrikan bajera alkitatzeko. ☎ 637948.

**KORTES.** Zaharberitutako etxea alokatzen da, uda alderako egokia. ☎ 630322 (Luzia).

**BERA.** Bi solairuko etxea eta 1.000m<sup>2</sup> ko lur eremua salgai. ☎ 631422. Prezio negoziagarria.

**DONEZTEBE.** Pisua salgai. Lau logela, 2 bainuge-la, egongela-jantokia, suk-aldea eta 3 balkoi. ☎ 630680 - 631367.

## DENETARIK

**Vaporeta** salgai. ☎ 450415.

**Kartelak,** buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten di-

tugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

330 litroko **esne tankea** eta 16 toneladako kupoa salgai. ☎ 631038.

**Akumuladore estatikoa** Fagor markakoa salgai, 3'2 Kwkoa, 6 auxiliarrekin, estreinatu gabea eta hagitz prezio onean. ☎ 627642, arratsaldetan.

**Erlojua** galdu dut Lesakan, iñauterietako larunbat eta igande arteko gauean. ☎ 637964 (Igantzi).

**Ezkurran erretako** base-rikoek (Etxeberriko borda) belar idorra erosi nahi dute. ☎ 451518 (Ezkalu). Laguntzak eskertuko dira.

**LESAKA.** 60 m<sup>2</sup> ko lokal bat salgai. Edozein gauzeta-rako prestatua. Merke. ☎ 637453.

**Kanposantuko** hilarriak aseguratzen ditugu. ☎ 631052.

## IBILGAILUAK

**AUTO** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Konpetizioko **motoa** salgai, Kawasaki KX-80 mar-

kakoa. Hagitz egoera one-an. ☎ 635219.

**Moto bat** Cota 309 markakoa salgai. ☎ 630686 (arratsaldetan).

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

**Nissan Patrol GR** salgai. NA-AL, 22.000 km eta estrak. Baita zenbait **Suzuki**, eta **Land Rover 88 Turbo** bat ere. Bigarren eskuko autoak.

**Peugeot 309 GTI NA-AH** salgai. ☎ 580762 (eguerditan).

## AZIENDAK

**Bi urteko aharia** salgai, mutur gorria, adarkeria. ☎ 450353.

Bi urteko **aharia** salgai, mutur gorria. ☎ 451696.

Boxer arrazako **zakurrak** salgai Beintza-Labaienen. ☎ 450679.

Husky siberiar arrazako **txakurra**, urtebetekoa, salgai. ☎ 514040.

Zubieta eta Iturengo iñauteen ondotikan **bekada zakur** beltz gaztea agertu da Aurtizen. ☎ 450179.

## LANA

**Emakume** batek lan eginen luke edozein gauzetan Lesakan. Esperientziatik, nahiago luke haurrak edo

adinekoak zaintzen. ☎ 627541 Belen.

**Bi lagun** mendiko lanetan aritzeko prest. ☎ 510035.

**Gazte** batek lan egingen luke kamioi gidari gisa edozein lanetan. ☎ 580540.

## AGURRAK

**El Salvadorren** dagoen Amaia Larralderi: berandu xamar bada ere, zorionak (otsailaren 24an) familiaren partez.

**Ainhoa T.ri:** Berako plazako mutilen partez, txibata bat zara.

**Sara eta Ireneren** partez Lourdes Intzak kordiona hagitz ongi jotzen duela.

**Hiru neskeren** partez, Maitane T. "tia buena".

**Y.M.ri** maite zaitut. I.A. ren partez.

**Leitzako Aroa H.ri:** Maite-mindurik nago. Oier I.

**Leitzako Aimar S.ri:** Oso guapoa zara. A.O.

**Jabi Telletxea Bakerori:** ez aritu nirekin ergelkerietan. Zuk dakizun neska baten partez.

**Leitzako Aroa H.ri:** Oso guapa zara. Ibai B.

**Leitzako Aroa eta Agumeri:** Euskal Herriko neska guapenak eta politenak zarete. Hiru aresoarren partez.

**Arizkungo Xabier Zapata** eta Josu Elizalderi: arras onak zaudete eta arras tipo ona daukazue. Zuek ezagutzen dituzuen bi neskeren partez.

**Oiartzungo** lau mutikoen-dako: oso onak zaudete, zuek ezagutzen dituzuen bi neskeren partez.

Aroa: maite zaitut. Joxemari S.

**Erratzuko Jaione,** Agurtzane eta Nerea oso majak zarete eta arras onak zaudete. Zuek ezagutzen dituzuen mutikoen partez.

**Mugairiko Aintzane** Salaberriri: arras ona zaudete Iruritako mutilen partez.

**Aresoko Kristina Saizarreri:** zorionak eta muxu haundi bat urtebetetze egunean (martxoak 7): egun zorionsua opa diote bere familiakoek eta Uxue eta Zuriñek.



**AROZ-BERRI**

N-121-B karretera • IRURITA • ☎ 581021


Auto eta mendi ibilgailuentzat

**ERREMOLKEAK**

30.000 Pta. (BEZa barne) dokumentazioarekin. Autoarendako engantzea urririk emanen dizugu.

Ez hondatu zure autoa eta eros ezazu erremolkea.

Edo bertzenaz, autoa eta furgoneta eduki beharrean, erremolkearekin diru pila bat aurreztuko duzu.



**SAME Traktoreak**



**BEINTZAko OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

**ttipi-ttapa**

Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik. Den-dena eskeintzen dizu!



# ttipi-ttapa

## Etxe xoko guzietan!!

### HEDAPENARI BURUZKO DATU KONPARATIBOAK (1996/02/08)

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	egin	DEIA	Egunkaria	Noticias	SUDUEST	ttipi-ttapa
<b>BAZTANALDEA</b> .....	394-542	81-109	81-115	7-7	25-27	131-185	0-0	1.534
Baztan <sup>(1)</sup> .....	361-509	81-109	77-109	7-7	25-27	125-185	0-0	<sup>(1)</sup> 1.337
Urdazubi .....	23-23	0-0	3-5	0-0	0-0	3-0	0-0	102
Zugarramurdi .....	10-10	0-0	1-1	0-0	0-0	0-0	0-0	71
<b>BORTZIRIAK</b> .....	147-211	646-854	153-200	11-12	44-49	63-70	0-0	1.907
Arantza .....	3-3	10-10	6-5	0-0	4-4	2-4	0-0	166
Bera .....	68-115	343-470	75-95	1-2	13-20	26-28	0-0	828
Etxalar .....	17-18	28-29	16-17	1-1	5-5	8-9	0-0	178
Igantzi .....	11-11	45-65	4-10	0-0	4-4	5-6	0-0	147
Lesaka .....	48-64	220-280	58-73	9-9	18-16	22-23	0-0	587
<b>LEITZALDEA</b> .....	83-169	103-150	94-165	3-3	17-23	29-29	0-0	908
Areso .....	8-9	0-0	6-0	0-0	0-0	0-0	0-0	54
Goizueta .....	0-0	35-55	26-90	0-0	8-10	2-2	0-0	211
Leitza .....	75-160	68-95	62-75	3-3	9-13	27-27	0-0	643
<b>MALERREKA</b> .....	230-401	112-168	51-68	1-3	14-13	58-65	0-0	1.195
Doneztebe .....	153-201	87-142	36-45	1-3	10-10	29-35	0-0	309
Ituren .....	0-0	0-0	8-12	0-0	1-1	0-0	0-0	117
Sunbilla .....	38-60	25-26	6-10	0-0	1-0	23-24	0-0	174
Herrietan <sup>(2)</sup> .....	40-40	0-0	1-1	0-0	2-2	6-6	0-0	<sup>(2)</sup> 595
<b>SARA</b> .....	0-0	6-6	6-6	3-3	5-5	0-0	250-250	122

### HEDAPENA ZENBAKITAN

Lehen kopurua asteguneko banaz bestekoari dagokio, bigarren kopurua igandetako banaz bestekoari.

DEIA	25 - 28
Egunkaria	105 - 117
SUDUEST	250 - 250
Noticias	281 - 349
egin	385 - 554
EL DIARIO VASCO	948 - 1.287
Diario de Navarra	854 - 1.323
<b>ttipi-ttapa</b>	<b>6.184<sup>(3)</sup></b>

*Saltoki eta  
posta  
zerbitzutik  
eskuratutako  
datuen  
arabera*

<sup>(1)</sup> Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.

<sup>(2)</sup> Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izan ezik, korreoz hartzen direnak barne.

<sup>(3)</sup> Harpidedun guziak, eskualdetik kanpokoak barne.



# MUEBLES METS

mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

*Ez galdu  
deborarik!!*

## PINUAREN HILABETEA

- 135ko ohea
- Bi gau-mahai

**48.000 Pta.**

ALASA



**59.900 Pta.**

TRESILLOA



**49.900 Pta.**

TRESILLOA



**94.900 Pta.**

**BIDASOA**

**OPTIKA**

OPTIKO OPTOMETRISTAK

Nafarroa Ibilbidea, 21 • Tfnoa. (943) 63 01 93 • IRUN

- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTAZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
  - Estrabismoa
  - Begi Alferrak

